



## **AGINDUA, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona**

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak arauak egiteko prozedura arautzen du, eta, 4.1 artikuluan xedatzen duenez, xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da prozedura. Kasu honetan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak du eskumena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz. Horren arabera, sail horretako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari dagokio *“beharrianak aztertzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion arauzo neurriak proposatzea, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoaren arabera”*.

Era berean, 8/2003 Legearen 5. artikulua prozedura hasteko aginduaren edukia ezartzen du:

### 1.- Arauaren xedea eta helburua

Eusko Legebiltzarrak Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea onartu zuen, eta, horretarako, kiroleko dopinaren aurkako borrokan estatuan eta nazioartean aurreratuen dauden erakundeek onartutako printzipioak erabili ziren. Lehiaketa-kirolaren egitura piramidala denez, eta kirol-lehiaketek elkarren artean lotura dutenez lurralde-eremuetan eta -mailetan, Euskal Autonomia Erkidegoak esparru juridiko propioa behar du kiroleko dopinaren aurkako borrokan aritzeko, baina estatuko eta nazioarteko esparruari egokituta.

2003. urtean, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak (Suitzako zuzenbidearen mendeko fundazio pribatua da) Dopinaren aurkako Mundu Kodea idatzi eta onartu zuen, eta kode horren osagarri diren nazioarteko estandarrak ere zehaztu zituen. Kodea 2004. urtean jarri zen indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1ean aldatu zen. Testu horiek nazioarteko kirol-mugimenduak derrigor bete beharreko arau eta jarraibideen multzoa dira, baita beharrezko erreferentzia ere dopinaren aurkako borrokan esku hartzen ari diren erakunde publikoentzat (legebiltzarrak eta gobernuak, nagusiki).

Dopinaren Aurkako Mundu Kodea gobernuz kanpoko tresna pribatua denez, onartu ondoren, Dopinaren Aurkako Mundu Agentziak hainbat ekimen abiarazi zituen, eta, horien ondorioz, UNESCOk Kiroleko Dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa onartu zuen, 2005eko urriaren 19ko bilkuran. Espainiak ere berretsi duen konbentzio hori (2007ko otsailaren 16ko Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen) barne-ordenamenduaren zati bat da, Konstituzioaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreproiektuan aipatu behar da 12/2012 Legea Dopinaren Aurkako Mundu Koderaren egokitzeko asmoa duela, eta arau-tresna horrek ez duela gobernuek zuzenean bete beharreko nazioarteko itunaren izaera juridikorik. UNESCOren Nazioarteko Konbentzioak espresuki onartzen ditu Dopinaren Aurkako Mundu Kodearen printzipioak, zeinak berariaz jasotzen baititu 1. gehigarrian, baina argi eta garbi ukatzen du Kodea beraren zatia denik, kode hori *informazio gisa* jasotzen delako, *ez baita Konbentzio honen partaide*. Era berean, 4.2 artikulua gehitzen duenez, gehigarriek *ez dute betebeharrak loteslerik sortzen estatu partaideentzat nazioarteko zuzenbidean*.

Hori kodearen izaera pribatuari zor zaio. Kodeak berak onartzen duenez, *Gobernu gehienak ezin dira gobernuaren kanpoko tresna pribatuaren (adibidez, Kodearen) partaide izan, ez eta haiei lotuta gelditu ere*. Hori dela eta, *gobernuei ez zaie eskatzen Kodea sinatu dezaten, baizik eta Kopengageko Adierazpena sinatu eta UNESCOren Konbentzioa berretsi, onartu edo bere gain hartu dezaten*, horrek berariaz aintzatesten baitu Kodea, eta kodearen printzipioak onartzera behartzen ditu estatu partaideak. Era berean, Konbentzioan estatu partaideen betebeharrak ugari ezartzen dira, Kodeari dagokionez:

- Kirol-jarduerekin lotutako finantza-laguntza edo bestelako laguntza guztia edo zati bat kentzea kirol-erakunde edo dopinaren aurkako erakunde orori, baldin eta ez baditu aplikatzen Kodea edo Kodearen arabera onartutako dopinaren aurkako arauak.
- Dopin-kontrolak Kodearekin bateragarria den moduan egitera bultzatzea eta erraztea.
- Elkarri aintzatestea dopinaren aurkako erakunde guztien dopin-kontrolerako prozedurak eta proba klinikoaren emaitzen kudeaketa, Kodearen arabera diren kirol-zehapenak barne.

Horrekin batera, Dopinaren aurkako 2021eko Mundu Kodeak berak gobernuen konpromisoak aipatzen ditu: UNESCOren Konbentzioa betetzeko beharrezkoak diren ekintzak eta neurriak abiaraztea, Kodean ezarritakoaren arabera legeak eta erregelamenduak abian jartzea, eta abar. Eta Gobernu batek UNESCOren Konbentzioa berresten, bereganatzen edo onartzen ez badu, edo Konbentzio horretan ezarritakoa betetzen ez badu, *eragozki ahal izango zaio ekitaldien ospakizunetarako hautagaitza aurkeztea eta/edo ekitaldi horiek hartzea* (dopinaren aurkako 2021eko Mundu Kodearen 22.10 artikulua).

Kirolerako Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen aldaketa bat egin da jada, ekainaren 7ko 1/2018 Legearen bitartez (2018ko ekainaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria). Orduan, ekainaren 7ko 1/2018 Legearen bidez, 12/2012 Legea Dopinaren aurkako Mundu Koderaren egokitu zen, zeina Johannesburgen (Hegoafrika) onartu baitzen, 2013ko azaroaren 12tik 15era bitartean egindako Dopinaren aurkako IV. Mundu Konferentzian, zenbait kirol erakunde eta estaturen parte hartzearekin. Dopinaren aurkako Mundu Kodea 2015eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean. Bada, Katowicen (Polonia) izandako Dopinaren aurkako V. Mundu Konferentzian, 2019ko azaroaren 7an, kirol-erakunde eta estaturen ordezkarien parte hartzearekin, Dopinaren Aurkako Mundu Kodea onartu zen, eta 2021eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean (Dopinaren aurkako 2021eko Mundu Kodearen 27.1 artikulua arabera).

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoak nahitaez eta lehenbailehen egokitu beharra dauka orain indarrean dagoen Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea, Kodearen aldaketetara. Estatuetak legeiek kode berriaren berritasun nagusiak ezarri behar dituzte, eta horrek gaiari buruzko EAeko legeria aldatzea dakar. Kirol-jardueran osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoaren kasuan, dagoeneko iragarri du Gobernuak (Ministro Kontseiluaren 2020ko urriaren 6ko bilkura) Parlamentuari proposatuko diola araudia berrikustea, Kodearen aldaketa nagusiak sartzeko.

## 2.- Bideragarritasun juridikoari eta materialari buruzko iritzia.

Euskal Autonomia Erkidegoak, autonomia-estatuaren 10.36 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumen eskusiboa dauka kirolaren arloan. Eskumen-titulu hori baliatuz, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea onartu zuen, zeinak, 4.2.q artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei esleitzen baitie dopina prebenitzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko araudia. Era berean, Eusko Legebiltzarrak Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea onartu zuen, zeina orain aldatu nahi baita, Dopinaren Aurkako 2021eko Mundu Kodean jasotako nazioarteko esparrura egokitzeko..

Aholku Batzorde Juridikoak 231/2011 Irizpenean modu egokian adierazi zuen bezala, orain aldatu nahi den Legeari helduz, aipatutako eskumen-tituluez gain beste eskumen batzuk ere hartzen ditu eraginpean, hala nola autogobernu-erakundeen antolaketaren arloa (EAEEaren 10.2 artikulua), bereziki Dopinaren aurkako Euskal Agentziaren erregulazioa dela eta, eta Euskal Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauen eta administrazio-jardunbideari dagozkion arauen gaineko eskumena (EAEEaren 10.6 artikulua), diziplina- eta zehapen-prozedurak arautzen baititu.

## 3.- Antolamendu juridikoan duen eragina

Arautu nahi den Legeak Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatuko du.

## 4. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan duen eragina.

Adierazi behar da Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeak ez dakarrela inolako aurrekontu-kargarik.

Aldaketak ez dakar, zuzenean edo zeharka, egitura edo organo berriak sortzea. Era berean, ez dakar giza baliabide eta baliabide material gehiago jartzea.

## **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko Legearen proiektua egiteko prozedura has dadin erabakitzea.

**Bigarrena.-** Agindu honen bidez hasten den xedapena egiteko espedientea honako izapide eta txosten hauekin osatu beharko da:

- 1.- Proiektua egitea.
- 2.- Organo honek proiektua aldeztu onartzea.
- 3.- Sailaren txosten juridikoa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 7.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 4.- 8/2003 Lege horretako 8. artikuluan aurreikusita dagoen entzunaldi eta informazio publikoa, elkarte zenbaitek ekarpenak egin ahal izan ditzaizkien (EAEko eta lurraldeetako federazioek, Euskal Kirol Federazioen Batasunak, eta abar). Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, gainera, iragarki bat argitaratuko dugu, 20 egun balioduneko entzunaldia ematearren.
- 5.- Aipatutako 8/2003 Legeko 9. artikuluan adierazi bezala, beste administrazio publiko batzuek parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea, hiru foru-aldundiek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) ekarpenak egin ahal izan ditzaizkien.
- 6.- Prozeduraren memoria, 8/2003 Legearen 10.2. artikulua arabera.
- 7.- Memoria ekonomikoa, 8/2003 Legearen 10.3. artikulua arabera.
- 8.- Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordearen txostena, Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea arautzen duen maiatzaren 25eko 94/2004 Dekretuaren 3.e) artikulua adierazten duen moduan.
- 8.- Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena, Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duen azaroaren 7ko 220/2000 Dekretuaren 4 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 9.- Generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluaketa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 19.1 artikuluaekin bat; eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, halaxe ezarri baita Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan eta aipatutako erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3. d) artikuluan.
- 10.- Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuko 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 11.- Ekonomiaren eta arauen kontrol-txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategineko 25. artikuluan erabakitakoarekin bat (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretu bidez onartu zen).
- 12.- EAEko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena, hala baitago xedaturik EAEko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1 a) artikuluan.

13.- Aurreproiektuaren gaia dela-eta ezinbestean eskatu beharrekoak gerta litezkeen beste derrigorrezko txosten batzuk.

14.- Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea.

**Hirugarrena.-** Espedienteari honako hauek erantsiko zaizkio: hasteko agindu hau, dagokion dokumentazio guztia, hala badagokio, egindako azterlanak eta kontsultak, eta prozedura osoaren memoria labur bat, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan adierazitako edukiarekin, lege horren 12. artikuluan xedatutako moduan behin betiko onar dadin.

**Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI**